horrelakoak ginen

1957. urtearen inguruan jasotako irudia dugu hau. Bertan, antxoko San Ferminetan ohikoak diren koadrila bat azaltzen zaigu mozorrotuta, txaranga eta guzti, zezen plazan. Gaur egun 'Hispano Americano' bankua dagoen tokian kokatzen zen orduan zezen plaza, Zumalakarregi eta Blas de Lezo kaleek bat egiten duten hortan. Garai haietan, dirudienez, ohikoa zen San Ferminetan mozorrotzea, ondoren zezenen aurrean koadrila bakoitzeko ordezkariek beren trebetasunak azaltzeko. Baina, irudian azaltzen diren pertsona guztiak mozorrotuak al daude, ala badago baten bat zezenaren bi adarrak gutxi ikusi, eta hiru adarrekoa buruan zuela atera zela?

Iraganari begirada

ASPALDIKO KRISIA. I

Itsasadar honek, Euskal Herriko beste leku batzuk bezala, ekonomikoki garai[illegible]ak izan zituen, eta lanbide-sail ezberdine-tan nabarmendu zen. Ontzigintza pasaitarra XV. mendetik XVIII. arte lan franko egina da, eta hainbat tokitarako egin zituen belauntziak (Garaiezinezko Armada, Sevilla...) 1.595. arte ekoizpena handia izan zen, baina ordutik 1.615. arte jaitsiera izan zuen. Arrazoien artean, krisi ekonomikoa eta kaia istera behartu zuen izurritea daude. Kontuan eduki behar da portuak garrantzi handia zuela, Lopez de Isastik garbi azaltzen duen bezala, Pasaiak bai baitzuen lekua euskal eta espainiar merkataritzan. Sasoi hartako bere idazkietan irakur dezakegu Amerika eta beste zenbait lurraldetarantz burdina eta tresnen kargamendu-mugimendua bertan zegoela.

1.450-1.550/70 bitartean, gizarte feudalaren eredua baztertzean, gure portuak oso ondo kokatuta zeudenez, merkatu-harremanak ugaritu egin ziren. Eta arrantza ere, garrantzi gutxiagoko sektorea bazen ere, kai honetan gorenean zebilen. Hala, Felipe Barandiaran, gai honetako jakitunak idatzi zuenean, urtero gipuzkoarrak martxoa eta apirilean Ternuaratz irtenda, iraila eta urrian bakailoazbetetako arrantzontziak hustera Pasaiara itzultzen zirela aipatu zuen. Baina beste sektoreetan gertatu bezala, hemen ere krisia nabarmentzen hasi zen. 1.500-1.600 bitarte horretan, eguratsaren hozketa zela eta, badirudi arrainek ohizko bideak aldatu zituztela, eta orduan sortu zen arazoa kostako herriek jasan zuten. JOSEBA ANTXUSTEGIETXARTE

Pasaiako herri-aldizkaria

branka

Jauko Barik: bideak asmatzen

2000ko uztaila
07 zenb.

Erreportajea: Pasaia turisten pasealeku

branka

Pasaiako herri aldizkaria

2000KO UZTAILA / 07 ZENB.

Argitartzailea:
Arnasa Euskara Elkartea
Eskalantegi 38, behea.
Pasaia. 20110
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua:SS-42/2000
ISSN:1576-0138
Inprimategia:
Antza, Lasarte-Oria

Tirada:2500

Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Publizista
Larraitz Rubio
Hizkuntza arduraduna
Izaskun Aldezabal
Diseinua
Txema Garcia Urbina
Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo,Jon Goikoetxea, Birjinia Ortega, Ixiar Goienetxea, Juan Olalde, Izaskun Aldezabal, Gorka Muñoz, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Patxi Otxoa, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz eta Patxi Berdote.

AZALA: Lander Garro

harpidetza-txartela

***BRANKA** aldizkaria hilero dohainik zure etxeko postontzian jaso nahi baduzu, bete ezazu beheko aldean duzun harpidetza txartela, eta bidal iezaguzu behean aipatzen den helbidera.*

Izen-deiturak .....

Helbidea .....

Herria ..... Tel .....

Herrialdea .....

Bidaltzeko

ARNASA EUSKARA ELKARTEA
"BRANKA aldizkaria"
ESKALANTEGI KALEA 38, BEHEA -
20110 PASAIA (Gipuzkoa)
Tel.:943 34 10 45

Aldizkari honek Pasaiako udalaren laguntza jaso du

aurkezpena

Brankazaleei

Zzzz...Poom!!! Jai giro bete-betean kaleratzen da Brankako zazpigarren zenbaki hau. San Pedroko jaiak eta Sanjoanak igaro berriak, zein baino zein, oraindikan ajearekin, eta konturatzerako, Antxoko San Ferminak. Trintxerpeko Karmenak iristear eta, hilabetea amaitu orduko, berriz, Santiagoak Donibanen. Pasaian, behintzat, ez da parrandarako aukera faltako uztailean.

Udararekin batera eta urteko zazpigarren hilabetearekin, Brankako zazpigarren zenbakiak ikusiko du argia; jai giroan murgildua, eta oporren usaiarekin. Jorratu ditugun gaietan ere, horixe islatu nahi izan dugu; turismoari buruzko erreportajea, eta jaiei buruzko berriak barrutietako informazioetan, besteak beste...

Eta oporretaz ari garela, ohar garrantzitsua daukagu Brankazale guztientzat. Izan ere, abuztuan jai hartuko dugu Branka aldizkaria hilero-hilero egiten dugun guztiok. Hilabeteko oporrak hartuko ditugu, udararen bueltan eta indarberriturik zuei guztiei berriro ere herriko informazioa helarazteko asmoz. Iragan abenduan ekin genion Branka kaleratzeari eta dagoeneko urrats xume baino garrantzitsuak eman ditugu orduan hasitako bidean. Bidearen bueltan eta porturatzera doan arrantzalea lez, orain, patxada hartuko dugu tarte batez, irailan Brankara salto egin eta bertatik behatzeko gurean gertatzen den guztia.

Bitartean, zuek, udaraz gozo gozatu eta ondo ibili.

LABURREAN

6-13. BARRUTIZ BARRUTI

14. ELKARRIZKETA
Jauko barik

18. KALE-INKESTA
Zeinek irabaziko du Kontxa? Nola sailkatuko dira lau treineru pasaiatarrak?

20. LABURRAK

22. ERREPORTAJEA
Pasaia turisten pasealeku

25. KULTUR AGENDA

Gas Pasaia

GURE HERRIKO ENERGIA NATURALA

Euskadi etorbidea z/g
Trintxerpeko Alkate-Ordetza
tlf.:943.39.57.86

telefono interesgarriak

UDAL ZERBITZUAK
Gizarte zerbitzuak:
943391187
Kultura, euskara eta gazteria:
943400108
Idazkaritza:
943344140
Dirubilketa:
943522150/4
Kontuhartzailetza:
943344157
Diruzaintza:
943344153
Hirigintza:
943344224
Udaltzaingoa:
943400000
Obrak eta zerbitzuak:
943393693
Antxoko Udal Liburutegia:
943515737
Trintxerpeko Udal Liburutegia:
943401053
San Pedroko Udal Liburutegia:
943399348
Pasaia Musikal Udal Fundazioa:
943396055

LARRIALDIAK
DYA:
943521557
Gurutze Gorria:
943511605

BAILARAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK
Lau haizetera:
943341048
Orratx:
943519144
Branka:
943341045
Oarso Telebista:
943493818/19
Oiartzun Irratia:
943493711

interneteko helbideak

EUSKARA
Elhuyar:
www.elhuyar.com
Argia:
www.argia.com
UZEI:
www.uzei.com
IVAP/HAEE:
www.ivap.com
UPV/EHU
www.ehu.es
Udako Euskal Unibertsitatea
www.ueu.org
Euskal Herrian euskaraz
http://www.geocities.com/capitolHill/7012/

EUSKARA TALDEAK
Gerdiaga elkartea
http://www.eusnet.org/partaide/gerediaga/home.htm
Bagera
http://www.jalgi.com/topagunea/bagera

BILATZAILEAK
www.jalgi.com
www.owr.com
INSTITUZIOAK
Arabako foru aldundia
http://www.alava.net
Bizkaiko foru aldundia
http://www.bizkaia.net
Gipuzkoako foru aldundia
http://www.gipuzkoa.net
Nafarroako foru aldundia
http://www.cfnavarra.es
Eusko Jaurlaritza
http://euskadi.net
BOPV
http://www.euskadi.net/bopv
Emakunde
http://www.emakunde.es

Goardiako farmaziak

uztailaren 5ean: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781 Uztailaren 9an:MªTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Tel.: 943 512349
Uztailaren 12an:MªLourdes Martinez Lagos. san Juan kalea 22. Donibane. Tel.: 943514645
Uztailaren 21ean: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781
Uztailaren 22an: MªTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Tel.: 943 512349
Uztailaren 23an: MªLourdes Martinez Lagos. San Juan kalea 22. Donibane.Tel.: 943514645
Uztailaren 25ean: Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Tel.: 943510545

besteak

JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA EZKONTZAK

Ekainan, 8 pasaitar hil dira; 6 bikote ezkondu dira eta, 5 jaiotza izan dira.

ODOL-EMAILEAK

Abuztuaren 9an Trintxerpen. Uztailaren19an Pasai Antxon.

ez zaitez moztu

Jaiak ospatu, amnistia bultzatu!

Berriro ere jaiak. Urte osoan itxoiten egon garen egun alaitsu hauek iritsi zaizkigun honetan, ezin ahaztu ditugu bere konpromiso politikoagatik guregandik urrun dauzkagun iheslari, preso konfinatu eta deportatuak.
Azken urte honetan Antxon berri ezin hobea izan dugu, Patxi Gil Gajate 13 urtez espetxe desberdinetan sakabanaturik egon eta gero, gurekin baitago. 13 San Fermin eman ditu etxetik kanpo. Hala ere, ezin ditugu ahaztu herriko hiru iheslari eta bestelako errepresaliatuak.
Etxean behar ditugu iheslariak ere Antxo hobe eta askeago bat eraikitzeko, beraiek hartutako konpromisoa zentzu honetan bideratuta baitago, eta urtetan eta urtetan, itzalpean, guztiok amesten dugun Antxo horren alde lanean ari direlako beraiek ere inolako zalantzarik gabe. Preso eta iheslari guztiek, hemen gure artean egon behar dute Euskal Herria eraikitzen, beraien aportazioa, gurearekin batera, ezinbestekoa delako. Orduan, amnistia lortzen dugunean, hasiko gara benetan eraikitzen Antxo, Pasaia eta Euskal Herria.
Hala ere, inguratzen gaituzten eta egunero-egunero gogaitzen gaituzten indar okupatzaileek, bai estatu espainolekoek nahiz frantzesekoek, oztopo ia gaindiezina suposatzen dute gure askatasun grinak guztiz akabatzeko helburuarekin: kontrolak, jazarpenak, torturak... utz gaitzatela behingoz bakean, joan daitezela!
Honenbestez, jai zoriontsuak opa dizkizuegu antxotar eta pasaitar guztioi, eta urte guztiko ardurak eta nekeak alde batetara uzteko aukera herriko kaietan galduko ez duzuela espero dugu. Jo ta ke amnistia lortu arte!

PASAI ANTXOKO AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA

BRANKA ALDIZKARIKO ERREDAKZIOAREN OHARRA

Begi aurrean duzun hau zure iritziak jasotzeko Brankak eskaintzen dizun lekua da. Zenbaki honetan Antxoko bizilagun batzuek igorritako eskutitzari egin diogu tarte, eta aurrerantzean zuen guztien gutunak jasotzeko irrikan gaude; kezkak, txaloak, kritikak, iradokizunak... den-denak izango du lekua gure postontzi pottolo honetan. Beraz, anima zaitezte, eta gehiago pentsatu gabe igorri zuen eskutitzak kontrazalean ageri zaizuen helbidera. Laister arte.

donibane

Herriko arraun elkarteekin solasaldia

Trainerilen denboraldia amaitu eta traineren denboraldia hastekoa denez, herriko bi arraun elkarteekin solasaldi bat edukitzea pentsatu genuen. Horretarako, Koxtapeko Kintanarekin eta Donibaneko arraun elkarteko Patxirekin hitz egin genuen.

KOXTAPE ARRAUN ELKARTEA

Zer moduz joan da bukatu berri den trainerilen denboraldia?
Kaskarra. Iaz nahiko ongi ibili ginen, baina aurten arraunlari berdinekin, batekin izan ezik, emaitza kaskarrak lortu ditugu. Arrazoiak bilatzerakoan, beste elkarteak indartsu daude eta gure elkarteko arraunlari asko aulki mugikorra indartsu prestatzen ari dira.

Espero zenuten emaitzak lortu al dira?
Ez. Gehiago espero genuen, baina agian aurtengo maila altuagoa da.

Orain traineren denboraldia hasiko da. Zer aurreikusten duzue ? Iazko emaitzak lortzeko itxaropenik ba al dago ?
Iazko emaitzak lortzea zaila ikusten da, zeren liga irabazteko erregulartasun bat mantendu behar duzu, eta Kontxako bandera irabazteko indartsuena izateaz gain, suertea ere behar duzu.
Talde bezala, iazko maila lortuko dugu, baina agian beste arraun elkarte batzuk iaz baino maila altuagoa lortuko dute.
Hala ere, ilusioz beteta gaude eta hor goian ibiliko garela pentsatzen dugu, Astilleros, Castro, Orio eta Arraun Lagunarekin batera.

Iaz Kontxako bandera irabazitako arraunlarietatik, zenbatek utzi dute? Zenbat berri daude?
Iaztik hiru arraunlarik utzi dute, eta aurten lau arraunlari berri etorri dira. Lau horietatik hiru lehen ibilitakoak dira eta bestea Legutianotik etorri da. Denera 21 arraunlari edukiko ditugu.

Atzetik gazteak datoz ?
Geroz eta arraunlari gutxiago dago eta hori hemendik urte batzuetara arazo larria izango da.

DONIBANEKO ARRAUN ELKARTEA

Zer moduz joan da bukatu berri den trainerilen denboraldia? Espero zenuten emaitza lortu al duzue ?
Kaskarra izan da, gehiago egitea espero genuen. Ligilan laugarrenak gelditu gara, eta hori baino emaitza hobea lortzea pentsatzen genuen.
Iazkoarekin alderatuz okerragoa izan da, iaz dena irabazi genuen eta, aurten, berriz, ez.
Arrazoia aurkitzerakoan, guk jaitsi egin dugula, aldaketa batzuk egon dira eta iaz egon ziren hiru arraunlari ez dira egon.

Orain traineren denboraldia hasiko da. Zer aurreikusten duzue ? Zer itxaropen duzue ?
Patxi: Gure helburuak Kontxako estropadan sailkatzea eta ligan ongi ibiltzea dira, iazko emaitzak hobetzea.

Iazko trainerarekin konparatuz aldaketak egon al dira?
Lau arraunlari joan egin dira, baina zazpi arraunlari berri sartu dira, horietatik hiru Getariatik etorri dira eta trainerila denboraldian ongi ibili direnez, gure maila igoko dela pentsatzen dugu. Arraunlari berriekin emaitzak hobetuko direla pentsatzen dugu.



Atzetik gazteak al datoz ?
Arazo larria da, baina ez gure elkartearena bakarrik, Euskal Herriko beste elkarte guztien arazoa ere bada. Gazte gutxi apuntatzen dira, eta geroz eta gutxiago. Arrauna oso gogorra da, eta batzuek bakarrik irabazten dute, eta besteak etsi egiten dute. Izugarrizko lana da eta ez dute ordainik ikusten.

herriko bazterrak



Santa Isabel gaztelua

Herria beldur zen atzerritar etsaien eta korsarioen itxas-ontziak erasoko ote zioten bere kai barrenean zeuden beste itxas-ontziei, baita ere herrian bertan halako jendea sartuko ote zen kezka. Hargaitik Karlos I enperadoreak agindu zuen bai San Pedro aldean eta bai Sanjuanekoan bi dorre edo gaztelu eraikitzea. Lehenengoa, San Pedrokoa egin zuten. Gaur ez da bere azterrenik ezagutzen. San Juangokoari hasiera eman zitzaion denbora berean, baiña Felipe IV garren erregeak erabat bukatu erazi zuen. Kañoiak zituen Gazteluak, kaiaren ahoa etsaietatik gordetzeko. Hogeitamar bat gudari beta gordetzeko Gazteluaren lehenengo zaindaria, Leon de Zurko e Irizar, Caballero de Santiago, berez errenderiarra, izan zen. Azkenik, herria ta kaia etsaietatik gordetzeko hain beharrezko ez zela ta, 1876 garran urtean laga zuten. Gaur ikusten dena, izan zanaren zati bat besterik ez da.

Felipe Barandianek idatzitako eta Pasaiako Udalak 1987. urtean argitaratutako *Pasaia: bere historia, bere artea, bere bizitza* liburutik ateratako testoa.

Itsas-Mendiren irteera Piriniotara

Itsas-Mendi Kultur Kirol Elkarteak irteera bat antolatu du uztailak 15-16 bitarteko astebukaerarako.
Irteera, larunbat goizean izango da. Autobusak Ozan utziko gaitu, eta larunbatean bertan, Atxeritoko lakura igotzeko aukera egongo da. Akanpada Casa de la Minan egingo da.
Igandean, paisaia paregabe bat zeharkatzen duen ibilaldia egingo dugu: Echoko Bailara, Aguas Tuertas, Ibon de Estanes zeharkatu eta Candanchura iritsiko gara.
Apuntatzeko, Txintxorro, Patxiku eta Errekatxu.

pasadizoa

San Juan sua

70. hamarkadan, frontoi eta errekako suaren artean pike ederra zegoen, ea zeinek egiten zuen su landu eta handiena.

Frontoi aldekoa Juan XXIII, Lourdes Txiki, San Roke eta Bordalabordako mutilak egiten zuten, eta Errekakoa plaza eta San Juan kalekoak. Azken hauek, errekan zegoen tranpolinean jartzen zuten beti. Eta bestea, frontoi ondoan, eskola publikoaren ondoan. Bi taldeen arteko espioitza egoten zen eta noiz behinka egurren bat lapurtzen zen.

Errekakoek bere suaren pisuarekin tranpolina behera bota nahi zuten (ez zuten inoiz lortu). Frontoikoek, berriz, bere suaren indarrarekin pareko etxeko kristalak apurtu nahi zituzten, hau baitzen sua potentea zen ala ez neurtzen zuena (nozbait lortu zuten).

Bi suak pizteko material berdina erabiltzen zen: papera. Horretarako, etxez etxe paper-bilketa egiten zen: egunkariak, kartoiak, aldizkariak...eta azken hauen artean bazegoen bat beti misteriosoki saltzen zena: INTERVIEW aldizkaria, hain zuzen ere.

KUÑAU

trintxerpe

Badatoz 2000ko karmenak

Bai, halaxe da. Dagoeneko urtebete igaro da 1999ko Karmenei agur esan genienez geroztik, eta hemen ditugu 2000ko Karmenak. Aurtengo jaiak uztailaren 14an hasiko dira eta 17an amaituko. Datak betikoak badira ere, aurten bada aldaketarik; izan ere, Karmengo Amaren eguna igandea izango denez, jai-eguna astelehenean ospatuko da. Jaiak ohi baino egun bat beranduago bukatuko direnez, ohi baino beranduago hasiko dira, ostiralean, hain zuzen ere.

Eta zer prestatu digu jai batzordeak 2000ko Karmenetarako? Bada, jai egitarauari dagokionez, ez dago aldaketa nabarmenik. Danborradek, urtero bezala, garrantzia handia izango dute. Bost danborrada lau egunetan ez da, ez, gauza makala gero!! Danborrada gehiegi, akaso? Litekeena. Baina, tira, horrelakoak gara trintxerpetarrok, ezta? Bost danborrada esan dugu, baina agian seigarrena ere aipatu beharko genuke. Izan ere, iazko jaietako sorpresarik politenetarikoa izan zen Txatunga Benbe perkusiotaldearen emanaldia izango baitugu berriro ere aurten. Azoka ondoko txosnek antolatutako saio hau ostiralean izango da, gaueko 12:00etatik aurrera. Iaz Txatunga Benbe-ko lagunen danbor eta tinbalek sortu zuten giro aparta kontuan hartuta, emanaldi arrakastatsua izango dela ziurtzat jo dezakegu.

Iazko jai-egitarauean lehenengo aldiz agertu zen beste ekintza batek jarraipena izango du 2000ko Karmenetan. Goitibehera-lasterketaz ari gara. Larunbatean izango da, arratsaldeko 16:00etan, hain zuzen ere. Hala ere, parte-hartzaileek 15:30etan egon beharko dute "Caballo Blanco"n, izena eman eta arauen berri izateko. Goitibehera polit askoak ikusi ahal izan genituen iaz, ea aurtengoak hobeak diren. Hala ere, Karmenetan ez dira danbor eta goitibeherak bakarrik izango. Egongo dira, esaterako, afari goxoak, haurrentzako jolasak, herri-kirolak, sardinadak, bazkari goxoak, dantzaldiak, kontzertuak... ufff, zerrenda luzeegia da eta ez da denak aipatzeko unea. Nekatuko ginateke irakurtzen, eta egun hauetan sasoian egotea komeni da. Bueno, bada, Branka aldizkaria egiten dugunok ahalik eta ondoen pasa dezazuela opa nahi dizuegu.

Nortzuk izango dira epaimahikideak?

Zinema edo kulturarekin erlazionatutako lagunak bilatzen saiatu gara. Aurtengo epaimahikideak honako hauek izango dira: Peio Aldazabal, euskal filmotekaren zuzendaria, Begoña del Teso zinema kritikaria eta Jon Sanz, Lugaritz Kultur etxearen zuzendaria.

Abaraska euskara elkartearen kultur astea

Sortu berri den Abaraska Euskara Elkarteak antolatutako kultur astea oso arrakastatsua izan zen. San Pedron eta Trintxerpen burutu ziren kultur ekitaldiak eta balantzea ezin hobea izan zen. Haurrentzat prestaturiko ekitaldiak arrakastatsuenak izan ziren, eta, adibide bat jartzearren, Nautika eskolako planetariora egindako bisitan bildutako haur kopurua gehiegizkoa izan zen. Hala ere, izugarri ondo pasatu zuten izarrei-eta begira. Larunbatean, Trintxerpeko kaian jarritako puzgarriekin ere primerako arratsaldea pasatzeko aukera izan zuten. Helduek ere hainbat aukera izan zituzten euskara eta kultura batu zuen kultur astean. Planetariora egindako bisitan 30 bat lagun bildu ziren, eta Pasaiako euskararen historiari buruzko liburuaren aurkezpena, Trintxerpeko liburutegian egin zena, jendetsua izan zen.

Laburmetraia lehiaketa australiara

Trintxer Kulturaleko lagunek antolatu zuten film laburren-lehiaketaren 1. Saria Australiara joan zen, bertakoak baitira "Purgatory" izeneko film laburraren egileak. Pentsatzekoa denez, egileak ez ziren saria jasotzera etorri, baina, hala ere, posta elektronikoaren bidez eskerrak eman zizkieten epaimaikideei beraien lana saritzeagatik. Epaimahaiaren sari berezia irabazi zuten egileak, aldiz, saria jasotzera hurbildu ziren. "Morituri" izenburua zuen film laburraren egileak Madrilgoak dira eta pozez gainezka zeuden larunbatean saria jaso ondoren. Oso egun politak pasa omen dituzte gure artean, eta datorren urtean etortzeko asmoa dutela esan zuten. Trintxer Kulturaleko lagunak gauzak ondo egiten ari diren seinale, zalantzarik gabe.

Azkenik, beste bi sarien berri eman nahi dizuegu. Ikuslegoaren saria, Trintxerpen bertan geratu da, Karmengo Ama eskolako tailer bateko kideek egindako "¿Abrimos..? izenburua zuen film laburrari esker; eta euskal film laburra onenaren saria izenburua zuen eta Larrotxeneko ikasleek egindako "pensamientos negros" film laburrak eskuratu zuen.

Abaraska euskara elkartearen oharra

Uztaila osoan zehar Abaraska Euskara elkarteak Trintxerpeko azokan duen lokala zabalik egongo da honako ordutegian: goizez 11:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldez 18:30etatik 20:00ak arte. Dena dela, harremanetan jar zaitezkete telefono-zenbaki honen bidez: 943.39.10.00.

polizoiaren galderak

Zer dago heriotza eta gero? Ez dakit. Nork bere erantzuna eman beharko dio galdera honi. Nik neuk badut erantzunik baina ez dut uste oso interesgarria suertatuko zaizuenik eta, beraz, ez dut esango. Haatik, gizarte kristau batetan bizi gara eta kristautasunak honen inguruan dituen erantzunek zer pentsatu ematen didate maiz. Kristautasunak, zera dio heriotza eta gero gure izpiritua Jaungoikoaren ondoan biziko dela, "per secula seculorum" bizi ere. Ados egon naiteke edo ez, baina kristauek argitu ez eta galdetu nahi dudana zera da, Jaungoikoaren ondoan egonda nire izpirituak gaur egun ditudan pentsamenduen baitan jokatuko du ala pentsamenduak zeharo aldatuko dizkidate? Nire izpirituaren pentsamenduak nire pentsamenduekin bat ez badatoz, kontsidera al liteke nire izpiritua? Eta azkenik, hil den jaioberriak, pentsatzeko gaitasunik ez duen gizakiak, nola jakingo du jaungoikoaren ondoan dagoela?

TESTUAK: ERKUDEN MUGURUZA / BERNAR ARRATIBEL

san pedro

Amerikano bat San Pedron



Justin Craumbaugh. Mutil fina eta guapua, Michigandarra, hispaniar literaturan aditua eta duela gutxi euskara ikaslea.

Pasaia Pirinio ondoan beti eskamak kentzen eta arraunean dabilen herria da?
Hori estereotipo polit bat izan daiteke, eta egia da, ikuspegi batetik, beti eskamak kentzen dituen jendea badagoela, baina sagardo-botiletako txapak kentzen dituen jendea ere badago.

Erraza al da euskaldunon buru-hezur desberdina, sudurra... eta gauza horiek guztiak nabaritzea?
Bi urte pasatu ditut Pasaian eta buru asko ukitu ditut eta sudur asko ikusi. Eta kanpotik buruak oso normalak iruditzen zaizkit, eta ukitzean ere bai. Baina barruan kraneoei buruzko pentsamendu asko daudela uste dut. Desberdintasun fisikoa baino, horren kontzientzia moduko bat dagoela uste dut.

Zerk motibatu zaitu euskara ikastera?
Euskal Herria asko gustatzen zait eta hemen lagun asko ditut, eta horregatik ikasi nahi nuen euskara. Hona etorri nahi izan dut, gero nire lanetan Euskal Herriari buruz idatziko dudalako.

Ikasitako euskara-zatia erabiltzeko aukera ematen dizu San Pedrok?
Gutxi. Jendeak erdaraz hitz egiten dit errazago delako. Nire lagun guztiek euskaraz dakite, baina nirekin hitz egiteko zaila egiten zaie.

Euskararen normalizazioa Michigandarrek euskara ikastean datza?
Nire ustez, ez dakit errezetarik euskara gehiago hitz egiteko kalean, baina euskara batua oso praktikoa iruditzen zait.

Nola azalduko zenioke amerikar bati euskaldunon izaera adjektibo eta aditz batekin?
Harrigarriak eta abestu.

Charlton Heston galeretan, eta hemen trainerutan; zure esku egongo balitz, zein pankarta atera beharko luke San Pedrok aurtengo kontxan?
-Kaixo ama!- Estranjeruan nagoelako.

Barazkizalea izanda, nola ulertzen duzu herri honek janariarekiko duen mirespen garatu antzeko hori?
Euskaldunen estereotipo egiazko bat badago; hori da janariarekiko kultoa. Baina jan baino gehiago, janariari buruz hitz egiten dute: ingredienteei buruz, errezetak...eta niri janariari buruz hitz egitea asko gustatzen zait, eta hori hemen bakarrik egin daitekeen gauza da.

Zer eramango zenuke udako egun batean fianbreran Puntetara?
Tortilla patata bat eta coca-cola bat, eta gero patxaran batekin.

Eta zein liburu, eguzkiak laztantzen zaituen bitartean?
Zurekin joango banintz, nire euskarazko hiztegia.

Bukatzeko, San pedro aldean muxu bat jasotzeko lekurik politena?
Kofradiako tabernan.

Goizean goiz porrusalda

Garai batean BETI-ALAI, orain PORRUSALDA, Don Simon apaizak Azkoititik ekarritako ideia, gure herriko jatorrizko zerbait bezala dugu denok.
Lehen aldiz 1958ko uztailaren 1ean egin zen, herriko festetan umeak egun batez protagonista bilakatzen zirelarik. Orduan, agintea umeen esku geratzen zen ordu batzuetan zehar. Alkate, aguazil eta gainontzekoei lagunduz, BETI-ALAI txaranga irteten zen.
Egun handia zen umeentzat. Goizean goiz jaiki, beren arropa zuri eta gerriko gorriz jantzi, eltze-tapa eta koilara eskuetan hartu eta herri osotik soinua ateratzera. Meza entzun eta gero, herriari bira bat ematen zioten. Arratsalde partean, merienda berezia izaten zuten, eta etxera joan arteko ordu horietan herria bere egiten zuten.
Ohitura honek gaur egun arte jarraitu du, baina eraldaketa batzuk izan ditu. Esaterako, alkate eta gainon-tzeko pertsonaiak jada ez dira Porrusalda txarangarekin irteten. Orain umeak goizean goiz irteten dira beren eltzeekin , batzuk zuri-gorriz jantziak, beste batzuk arrantzale jantziekin.Urteen poderioz , beste aldaketa batzuk ere egon dira. Hasiera batean, akordeoiaz lagundurik jotzen zen, beste urte askotan, soilik eltze-tapa eta koilararekin, eta azkenaldi honetan fanfarreko musikari batzuk irteten dira erritmoa eramaten laguntzeko.

Honela ba, Azkoititik etorri baina gurea egin dugun txaranga berezi honek, ia berrogeitamar urte eta gero, haurraren egunean, goizean goiz esnatzen gaitu,ontzien zartadak gure iratzargailu bilakatuz.

Denbora galduaren atzetik

'48-a', 'Caracoles', 'Arkupiak', 'Casa Onda' eta antzeko toponimorik ez zen aurkitu pasa den maiatzaren 27an gure herriaren historia ezagutzeko Piña Kurdin elkarteko bidai agentziakoek antolaturiko 'San Pedrotik ibilaldi gidatua'n.
Gure arbasoek izan zuten bizitzatik egun atzeman daitezkeen arrastoetara bidaiatzeko proposamen bikain honek 20 bat lagun bildu zituen memoria-prozesio honen irteera puntuan: Torrean.
Bertan, Pasaiako toponimia eta historiaren jakitun den Angeltxo Elortegik, denboraz bestaldeko arima, data, gaskoi, batelera, pasadizo, izen eta abarrak ekarri zituen bildutakoen entendimendura.
Puntu honetan azaldu ziren XII. mendean Nafarroako Antso Jakitunak, itxasorako bide baten beharrean, Donostia eta Hondarribiari emandako hiri-gutunak, eta baita harrezkeroztik 1805a arte, gure herriaren eta portuaren Donostiarekiko menpekotasunak historian zehar sortutako iskanbila eta auziak ere. Izan ere, 1508koa da portua eta herritarrak kontrolatzeko Donostiak eraikitako torre borobil eta fortifikatua.
Segidan, XII mendean Baiona aldetik etorritako gaskoien eragina azaldu zuen Angeltxok. Nabarmena, batez ere, herriko hainbat izen lekutan: 'Pasaia'; ('puerto de Passaie' (1374)), gaskoieraz pasatzeko tokia adierazten duen 'Passàdje' hitzetik dator; 'Salbio', 'Sableu' ('marisma') hitzetik, eta 'Zamatete', 'San Matet' santu -izenetik . Honela irakur daiteke 1494ko agiri batean '...de la torre al Sableu y Cai de San Matet...'
Anjeltxoren hitzjarioak ez zuen etenik. Eta horrela azaldu ziren 1662an Felipe IVak Madrilgo El Retirora arrauna egitera eraman nahi izan zituen bateleren gorabeherak, lanak eta xelebrekeriak...Baita Torrean egoten zen Donostiako erregidorearen trikimailuak ere, eta bertako enbarkadero eta iturria, 'Arriba Lagunt ' eta 'Arribalapunta' izenez ezagunak izan ziren garaiak.
Orduantxe Torrea utzi eta kanposanturako bidea hartu zuen espedizio kultural honek. Bidean, kale zaharreko antzinako etxe-izenak: Andeederra, Arzobispoenea, Blas de Lezoenea..., eta hauetako batzuen jarduerak ezagutu ahal izan ziren: ospitalea, organo-fabrika...
Kanposantuan eliz kontuak aditu ziren, hementxe eraikia izan baitzen 1457an San Pedroko eliza zaharra. Garai haien lekuko, kanposantu sarrerako ate gotikoa eta inora sartzen uzten ez duen ate erromanikoa geratzen dira. Leku honetara asko igo behar zela eta, 1774an plaza ondoan egin zen eliza berria.
Momentu honetan hasi ziren espedizio honen igoerak eta izerdi kulturalak: Ostaberde gaina, Sorgin malda, Fuertia eta Sorginerria igo zituzten, bidezidorretan Angeltxok leku-izenen nondik norakoak, gertaerak eta xelebrekeriak azaltzen zituelarik, hala nola, San Pedro aldean bakarrik loratzen den 'armeria euskadiensis' lorearen existentzia.
Burua beteta, Saltoko iturrian sabela betetzeko saioa egin zen. Eta eginkizun hauek oso ondo bete eta gero, Platako eta Senokozuloko farolak, Ondartxo eta Kalparra atzean utzita, Torreatzerako bidea hartu zuen ordurako eminentziaz beteriko taldeak, hantxe aurkitzen baita 'Muguruza' toponimoa izentzat duen taberna.

antxo

Euskal giroaz blai San Fermin-netako igandea

Herriko jaietan jendearen parte-hartzea eta giro euskalduna sustatu nahian, Arnasa Euskara Elkarteak, Koadrilen arteko kirol-txapelketa antolatzen hasi zen orain dela hiru urte. Harrezkero, asko dira San Fermin-etako igandean Gure Zumardiraino goiz-goizetik bertaratzen diren pasaitarrak.

Aurten goizeko 11:00ak aldera emango zaio hasiera Koadrilen arteko kirol-erronkari. Aurkezpenak, etxafuegoak eta bertso-agurrak izango dute giroa piztearen ardura. Jarraian, koadrilen arteko erronka hasiko da . Mugalari-proba, lokotx-bilketa, toka, tronza eta sokatiran lehiatuko dira koadriletako partaideak. Azpimarratzekoa da aurten inoiz baino lagun-talde gehiago animatu direla. Zortzi koadrila arituko dira norgehiagoka; lau gizonezko eta beste lauak emakumezko. Emakume taldeek parte hartzen duten lehendabiziko aldia dela aipatu behar da. Aurten irabazle suertatzen direnentzat 25.000 pezetako saria izango da.

Erronka amaituta, indarrak berritzeko aukera ezin hobea izango da Axular plazan egingo den herri bazkarian. Sabelak bete eta eztarriak busti eta gero, erromeria aparta Jon Ansorregi eta Andoni Larrañaga trikitilariekin. Eta bukatzeko, herriari buelta txarangak lagunduta. Honetaz guztietaz gozatu ahal izateko, txartelak Kamio tabernetan eskuratu ahal izango dira.

Parte hartuko duen emakumezkoen koadrila baten kideak.

ARNASA SARIA

Bazkalondoren eta Axular plazan bertan banatuko da lehendabiziko aldiz Arnasa Saria. Sari honen xedea, herritarrek edo bertako elkarteek egindako lana txalotzea da. Aurten, Alkartasuna Dantza Taldeari ematea deliberatu da , bere jardueran euskarak presentzia nabaria duelako, eta beraien ekimenean gauza asko transmititzen dituztelako: herri kontzeptua, arbasoen ohitura eta dantzak..., eta, besteak beste, gure herriaren izena kanpoan ezagutarazteko egindako lanarengatik. Arnasa Euskara Elkartearen ustez, hau guztia nahikoa arrazoi bada errekonozimendu publikoa izan dezaten.

Esan bezala, aurten lehendabizikoz antolatzen da ekitaldi hau, baina gutxinaka jaietako erreferentzia bilakatzea eta urte askotan irautea da helburua.

Animatu eta ez ezazue galdu parte hartzeko aukera. Ondo pasa!

Muebles Altzariak Ruiztegui, s.a.
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa hiribidea, 15
Tfnoak.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTXO

PITXI - TXULO
JATETXEA - TABERNA
Eguneko Menuak eta Karta Zerbitzua
Eskalantegi 118, Molinao auzoa
PASAI ANTXO
tlf.:943.52.07.70

KAMIO Taberna
1934
Gure Zumardia, 27-20110-Pasaia (Gipuzkoa)

Eskuz binakako txapelketak Gazte Asanbladaren eskutik

Iragan ekainaren 17an eman zitzaion hasiera eskuz binakako txapelketari herriko frontoian. Esku-pilota partidak maiz ikusten zireneko garaiak berreskuratu nahian ekin zion Gazte Asanbladak txapelketa hau antolatzeari, eta benetan, arrakastatsua suertatu da ekimena. Adin ezberdineko 23 bikote aritu dira lehian, kementsu baina umorez. Ikuslegoaren harrera ere ezin hobea izan da, partidak jolastu diren bakoitzean frontoia jendez gainezka egon baita sekulako giroa sortuz. Finala, uztailaren 5ean jokatuko da, herriko jaiak iragarriko dituen txupinazoak eztanda egin baino ordu batzuk lehenago. Etxeferoaren iragarpenak, Gazte Asanbladak jaietarako antolatutako beste hainbat ekintzei bidea emango die; San Fermin bezperarako behi-futbola antolatu dute eta jaietako larunbatean bazkaria izango da Zumardian, gauean jadanik ohikoa bihurtu den barriladan parte hartzeko. Noski! Ezin ahaztu gaztetxeko taberna zabalik egongo dela eta bertan, egunero, kontzertuak ikus eta entzun ahal izango direla.

Artea karroza-desfilearen ardatza

'Arte Ederrak' izango da karroza-desfilearen XVI. Edizioko gai nagusia. Aurtengoan, artearen hainbat arlotan nabarmenduriko antxotarren lana azpimarratu nahi izan da. Iker Murillo Badiola dantzariari, Jose Luis Martinez 'Pasajes' margolariari, eta Ramón Rodriguez, Pasaitarra Musical Bandaren zuzendari ohiari omenaldia eskainiko zaie. Musika Banda berari ere aipamen berezia egin nahi zaio, izan ere, aurten bandaren 75. Urteurrena ospatzen ari da.

Desfilean, Cerdanyola del Vallesko musikariek eta bertako erraldoien konpartsak ere parte hartuko dute, herri honetara maiatzean Alkartasunak egin zuen bisita kulturalaren trukean.

Inguruko herrietako konpartsak ere hurbilduko dira gurera; San Pedroko Gatzaga, Errenteria-Oreretako Alaia, Irungo Dantzaka eta Hondarribiako Pilar Peña.

Kantinerak, alkate txikiek eta aiton-amonen ordezkaritzan, Pilar Falces eta Patxi Garagorrik desfilatuko dute.

Antolatzaileak, Euskadiko Feriante Autonomoen Elkartea, Diario Vasco, Iberdrola, Portuko Agintaritza eta Jai Batzordea dira. Ibilbidea Luzuriaga, Hamarretxeta, Blas de Lezo eta Eskalantegi kaleetan zehar egingo da.

Hau guztia, San Fermin jaietako igandean ilunabarreko 19:00etan.



Iker Murillo dantzariaren irudia.

Jauko Barik: bideak asmatzen

Itsaso, Haizea eta Enara. Apropos eginda dagoela badirudi ere, naturak bat egiten du Jauko Barik taldean, bai izenetan eta bai musika sortzeko unean ere, beraien abesti bateko zati txiki bat entzutean konturatzen baitzara musika era natural eta konplexurik gabe ulertzen dutela. Ongi ulertu ere. Orain datoz betiko komeriak: noren antza duten, zeintzuk diren beren eragin musikalak, rock-aren munduan idolorik ba al duten... Horrek guztiak ez die axola. Kazetariek egiten dituzten galdera aspergarrien zakuan sartzen dituzte hauek. Beraiek barruan dutena ateratzen dute, espresatzen dute. Oraindik asko eta asko daukate ikasteko, baina ikasle finak bezala, azterketak garaiz prestatzen dituzte. Noiz izango duten hurrengo azterketa? Seguru aski asteburu honetan, edo hurrengoan, edo bestean eskainiko duten kontzertuan, emakumeentzat, oraindik ere, rock-aren mundua etengabeko azterketaz josirik baitago.

TESTUA URKO ETXEBESTE ARGAZKIAK LANDER GARRO

Kristoren beroa egiten du. Hitzordua, gainera, arratsaldeko lehen orduan jarrita zegoen, beroarentzat erremediorik onena hondartza edo etxeko itzalpean egotea denean. Elkarrizketa honetarako argazkiak atera ondoren konturatu gara, diskoa atera berri duten hiru musikari hauek ('Jauko Barik', Esan Ozenki) beldur handiagoa diotela argazki-kamera objektibo bati ehunka pertsonen aurrean jotzeari baino. Hasiera batean mesfidati, aske eta konfiantzaz ondoren, hasi da hitzordu izerdi-tsua.

Konta iezaguzue nola sortu zen taldea: nola ezagutu zenuten elkar, zergatik Jauko Barik izena...

Institutuan ezagutu ginen. Hasiera batean Itsaso eta biok hasi ginen. Gure artean erlazioa sortu zen, bioi gustatzen zitzaigun musika. Ondoren, Buenavistan lokal bat uztea lortu genuen, baita instrumentu ba-tzuk utzi ere, eta hor hasi ginen dibertsio moduan, ondo pasatzeko alegia. Geroago, bateria-jole baten beharra nabaritu genuen, eta Haizeari komentatu genion; etorri zen, pila bat gustatu zitzaion, eta animatu egin zen. Hasieran, lehen esan bezala, guk ondo pasatzeko asmoarekin hasi ginen musikan. Hala ere, abestiak pixkanaka-pixkanaka ateratzen joan ziren, kontzertuak ematen...

Izenari dagokionez, Arratiako lagun batzuei Haizeak entzun zien Bilbon. Guri komentatu eta aurrera izenarekin. Jauko Bariken esanahia `sin mas´ edo `besterik gabe´da.

Badakigu 50 kontzertu baino gehiago eskaini dituzuela: zertan aldatu da taldea sorreratik hona, edo nabaritzen al duzue denborak ematen duen esperientzia?

Aldatu garela? Bueno bai, zentzu batean bai. Orain konturatu gara gauzak serioago hartu behar direla. Ondo pasatzeko asmoarekin jarraitzen dugu, baina maila ona emanez.

Bai, hitza `serioago´da. Baina, aldi berean, beste era batera lan egiten dugu. Kontzertuak ematen hasten zara, eta adrenalinaren gauza izango da beharbada,

baina abestiak sortzen joaten dira, eta kontzertu gehiago ateratzen dira, eta nolabait eboluzionatzen zoaz, ezta?

Diskoa: non kokatzen duzue, zuen taldearen progresioaren barnean? Zer suposatzen du? Zer espero duzue? Grabazioa nola joan zen Madrilen eta guzti hori?

Lokalean sartuta 3 urte daramatzagu, kontzertuak ematen eta. Hasiera batean, tirada gutxiko maketatxo bat atera genuen duela urte eta erdi gutxi gorabehera, lagunentzat-eta grabatua batez ere. Eta diskoa da pixka bat lan horren ondorioa.

Diskotik espero duguna da batez ere jendeak gustuko izatea, eta kontzertu batean ikusten gaituen per-tsona batek, gure musika gustuko badu, joan ahal izatea denda batera eta entzun gaitzala nahi adina. Ezagutzera emateko beste modu bat da.

Gure musikarekin transmititu nahi duguna, besteei transmititzeko tresna.

Diskoa Madrilen grabatu genuen, Roberto Alanekin. Aspalditik grabatzeko gogoa genuen, aukera sortu zitzaigun eta 'Sound Passion' estudioetan egon ginen hamagutxi egunez jo ta ke grabatzen; Vallecasen dago estudio hau. Grabazioak iraun zuen bitartean, Robertoren etxean egon ginen, eta oso ondo zaindu gintuzten. Han, Madrilen, bai Robertok eta bai Iker Tolosak, kristoren laguntza eman ziguten. A! Esan behar dugu Madrilen ere ondo jaten dakitela.

Zer santsazio jasotzen duzue publikoarengandik, edo zer bilatzen duzue kontzertuetan publikoarengandik.

Lehenik eta behin, gu gustura egotea bilatzen dugu. Publikoa inoiz ere ez dakizu zein punturarte dagoen gustura, baina norbera gustura egotea da lehenengo. Ondo pasatzen ari bazara, publikoari transmititzen diozu hori. Lehenik eta behin, gu gustura egotea da helburua, eta guk egiten dugunarekin jendeak ondo pasatzen badu, ordun kristona! "Buztana hozkatzen duen peskadilla" bezelakoa da zuzeneko lana.

Esan: nola sortzen dituzuen abestiak, letrak (esanahiak), bakoitzaren aportazioa taldean.

Abestiak, lokalean ideiak garatuz sortzen ditugu. Ideiak, bai Itsasok ekarritakoak edo lokalean ateratakoak dira, ondoren garatzen ditugularik.

Letrei dagokionez, egoera desberdinak azaltzen saiatzen gara: bai hiruren artean pentsatutako gai bat jorratzen hasi, gero Itsasok etxean lantzeko, edo bestela gutako norbaitek gai bat dauka buruan eta proposatu egiten du. Gure artean erabakiak ez dira indibidualki hartzen, guztion artean baizik. Nahiz eta batek ideia bat izan, erabakia hiruren artean hartzen da.

Gaiei dagokionez, oso desberdinak dira, baina beti ere bizitza honetan oinarritutakoak. Gure letrek gure bizitzarekin zerikusi osoa dute. Azken finean, zerbait idazten dugunean gure esperientzietan oinarrituz egiten dugu, gehienetan ere sentimenduak adierazi nahi ditugularik. Ez dira istorio asmatuak, baizik guri gertatutakoen arabera eraikitako letrak.

Betiko galdera. Emakumeak euskal musikaren esparruan: zergatik ez dagoen zaletasunik, oztoporik aurkitu al duten. Zer esango zeniekete orokorrean astear dauden taldeei.

Ez dizu inork ere esaten "zu emakume bat zara, eta etzazu inongo taldetan jo". Inongo oztoporik baldin badago bakoitzak bere buruari jartzen diona da. Argi dago emakume gutxi gaudela musika munduan, baina bueno, gu bezala talde asko honi buelta emateko lanean ari gara, eta jarraituko dugu.

Aparte, oztopoak musikaren munduan talde guztiek dauzkate, hasi berriak diren guztiak. Hori bai, matxismoa bizitzako beste esparru guztietan bezala azaltzen da musikan ere. Neskek egiten dugun musika ez da musika normal bezala hartzen, 'emakumeen musika' bezala baizik. Askorentzat musikataldea baino lehenago neska talde bat gara, eta ez da horrela. Beste multzo batean sartzen gaituzte, beste neska-taldeekin parekatuz, ez beste taldeekin orokorrean.

Nola onartzen dituzue kritikak? Zerbaitetan laguntzen al dute kritikek, bai onak edo txarrak direnean?

Azken finean, kritika bat pertsona baten ideia edo iritzi bat da. Badaude kritika batzuk beste batzuk baino amorru gehiago ematen dizutenak, batipat neska izateagatik kritikatzen gaituztenean. Kritika musikalak guztiak onartzen ditugu, denak baitira aberasgarriak, eta errealistak izan behar dugu beti gauza berriak daudela ikasteko pentsatuz. Baina bueno, guri interesgarriagoa iruditzen zaigu jendearen erreakzioa kontzertuetan, norbaiek paper batean gutaz idatzi dezakeena baino, are gehiago pertsona horrek ezagutzen ez bagaitu. Kritikek eragina dute zuk eman nahi diezun garrantziaren arabera.

Entseatzen ordu pila eta pila ematen dituzue (asteburuak...). Konpentsatzen al du horrek guztiak?

Guk denetatik egiteko denbora ateratzen dugu. Gustuko dituzun gauzak egiteko beti ateratzen duzu denbora, nahiz eta gutxi eduki. Orduak kendu diezaizkiekezu gauza onei edo txarrei. Etxean telebista ikusten orduak kentzeari, ideia ona deritzogu, denbora hori lokalean entseatzen, adibidez, aprobetxatzeko.

Nolakoa da, barnetik, euskal rock-aren mundu hau. 'Izarrik' ba al dagoen, taldeen arteko harremanak, kontzertu zirkuitoa, dirua...

Jendea kalekoa bezalakoa da, denetarik dago. Ez da, nolabait esateko, izkutuko mundu bat. Denak per-tsona arruntak gara, eta musika dugu komunean.

Egia esan, talde berriek zailtasunak dauzkate ateratzeko, ze jende gutxik ezagutzen ditu, eta ondorioz jende gutxi mugitzen dute kontzertuetan. Gainera, kontzertu askotan (dirua) galtzen ateratzeko arriskua duzu. Argi dagoena da Euskal Herrian ezin dela musikatik bizi.

Esan, Jauko Barik-en diskotekan ezinbestekoak diren 5 disko...

Itsaso: oraintxe asko entzuten dudan talde bat Spineshank da.

Haizea: nik ez daukat faboritorik une honetan, baina Dut-en 'at' oso ona iruditzen zait.

Enara: niri BAPen 'Zuria Beltzez'. Hasiera batean, Euskal Herrikoko talde guztien musika nahiko antzekoa iruditzen zitzaidan, eta disko hau uste dut besteetatik desberdina dela.

Aurrerantzean zer?

Ba orain arte bezala jarraitu.

Nork irabaziko du aurtengo Kontxa? Nola sailkatuko dira lau traineru pasaiatarrak?

1 Yolanda Blázquez.
29 urte. Langabetua.
Ene ustez, San Pedrok irabaziko du. Sailkapena egitekotan, San Pedro lehenengoa, Trintxerpe, Koxtape eta azkena Donibaneko.

2 Carmen Arrieta.
70 urte. Etxeko andrea.
Oriok irabaziko du, baina hori ez da nik nahi detena.
Koxtape , Donibaneko, Trintxerpe eta San Pedro. Aurten kaxkar ikusten det. Oso gazteak dira, baina itxura polita dakarkite.

3 Ramon Porta.
27 urte. Abokatua.
Nork irabaziko du Kontxa?!, ba, Koxtape Arraunlari elkarteak.
Eta beste pasaitarren artean, Donibaneko, gero San Pedro eta azkenik Trintxerpe.

4 Antonio Garcia.
65 urte. Mekanikoa.
Nik uste dut Oriok irabaziko duela. Nire ustez, lehenengo sartuko da Koxtape, gero Donibaneko, San Pedro, hirugarren eta azkena trintxerpe.

5 Olatz Goienetxea.
28 urte. Ludotekaria.
Uste dut Donibanekok irabaziko duela eta pasaitarren ordena, Donibaneko, San Pedro, Koxtape eta Trintxerpe.

6 Lide Etxaniz.
Langabetua. 22 urte.
San Pedrok irabaztea espero dut. Sailkapena? Ba, San Pedro, Donibaneko, Trintxerpe eta Koxtape.

7 Pedro Elizasu.
66urte. Jubilatua.
Traineru galiziarren batek.
Pasaitarren artean Koxtape, Donibaneko, Trintxerpe eta San Pedro, notizia onak iristen ari diren arren.

8 Bernabe Bengoetxea.
34 urte.Langabetua.
Koxtapek irabaziko du.
Besteei dagokionez, Donibaneko, Trintxerpe eta, azkenik, San Pedro.

9 Mari Carmen Rojas.
30 urte.Haur zaindaria.
Ni Hernanikoa naiz eta orain dela gutxi etorri nintzen San Pedrora bizitzera. Horregatik, ez naiz estropaden zalea. Hala ere, Trintxerpek irabaziko duela uste dut.
Nire sailkapena da Trintxerpe, San Pedro, Donibaneko eta Koxtape.

10 Gorka Edroso.
31 urte. Tabernaria.
Seguru ez dakit, baina San Juango bietako bat izango dela iruditzen zait.
Nere ustez ordena hau izango da: San Juan, San Juan, San Pedro eta Trintxerpe.

11 Eneritz Sein.
21 urte.Turismo ikaslea.
Nik esango nuke San Juanek irabaziko duela. Eta ordena, Donibaneko, Koxtape, Trintxerpe eta San Pedro, uste dut.

12 Jon Idoate
32 urte. Kaldereroa.
Nik uste dut San Pedrok irabaziko duela. San Pedro lehenengo, gero Trintxerpe, Koxtape eta azkenik Donibaneko.

Udako Euskal Unibertsitatera-ko bekak

Udako Euskal Unibertsitateak XXVIII. Udako ikastaroak prest ditu jada eta pasaiako Udalak, ihardunaldi hauetan parte hartu nahi duten herritarrei, matrikula ordaintzen laguntzeko bekak eskaini nahi dizkie. Ikasle eta langabetuei matrikula eta egoitza gastuen %50ª ordaiunduko zaie eta bestelakoei %25ª. Eskaera egiten dutenek, matrikul-orrien fotokopia, matrikulaziorako ordainagiria eta erroldaren zihurtagirias aurkeztu beharko dituzte Euskara Zerbitzuan, eta ikastaroa amaitu ondoren UEUk luzaturiko ziurtagiria ere.
Ikastaroak Biarritzen eta Iruñañn burutuko dira eta bertan egitarau trinkoa aurkezten zaio euskaldungoari. Aste bitan zehar, besteak beste, gizarte-zientziak, artea eta komunikazioa, itzulpengiztza eta bertsolaritzari buruzko makina bat mintegi eta praktika izango dira. Informazio gehiagorako Euskara Zerbitzura deitu, 400108 telefonora.
Animo eta zorte on!

'Pasaia-Oloron II. truke sozio-kulturala'

Uztailaren 1ean egin zitzaien harrera udaletxean, Oloron herritik etorritako gazteei. 12 eta 15 urte bitarteko 14 neska-mutiko egon dira gurean hiru egunez eta Brankak argia ikusten duenerako, herriko gazte-talde bat egongo da beraien herrian. Truke hau antolatzen den bigarren urtea da, eta antolatzaileak, Pasaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako kale- hezitzaileak eta Olorongo Prebentziozko eta Gaztedi Etxeko hezitzaileak dira. Olorongo gazteek ekintzaz betetako egitarau batez gozatzeko aukera izan dute. Hondarribiko kanpinean izan dute egoitza, eta, besteak beste, Pasaiako badia, Ernio mendia, Acuariuma eta Kontxako hondartza ikusteko aukera izan dute. Era berean, zer ikusi eta eginkizun ugari izango dituzte gazte pasaitarrak Oloronen, han igaroko dituzten hiru egunetan. Bertako kanpinean lo egingo dute, eta ekintzen artean azpimarratu behar dira 'Ibón de Estanés' mendiaren igoera eta arroil-jaitsiera.

Tito Irazusta, Paco Prieto, Pedro Etxeberria eta Iñaki Becerra, COPE sariak eskuan dituztela.

Paco Prietok, Pedro Etxeberriak eta Majestik enpresak COPE sariak jaso dituzte

Oarsoalderako COPE sariak banatu ziren pasa den maiatzaren 30ean Lintzirin hotelean. Tito Irazusta eta Xabi Pérez esatariek gidatutako ekitaldi honetan, eskualdeko hainbat pertsona ospetsuren lana txalotu nahi izan zen, eta, saritutakoen artean hiru pasaitar zeuden. Paco Prieto, Koxtape Arraun Elkarteko lehendakaria 74. urtetik, Pedro Etxeberria Ansa, Donibaneko musika bandaren zuzendaria azkeneko 40 urteetan, eta Iñaki Becerrak zuzentzen duen Majestik enpresa, ideia enpresarial hoberenari eskainitako saria jasoz. COPEk bi urtero eskaintzen ditu sari hauek, eta eskualdeko hainbat pertsona ospetsuk egindako lana txalotzea izan ohi du helburu.

Isidro Uzkudun, misiolari pasaitarra, tiroz hil zuten Ruandan

Pasai Antxon jaiotako Isidro Uzkudun misiolaria tiroz hil zuten pasa den Ekainaren 11n Ruandan kokaturik dagoen Muginako herrian.
Bertan etenik gabeko lanean 35 urte zeramatzan, beti ere gizarte alorreko hainbat eta hainbat lan burutzen, herrialde honek duela urte askotik pairatzen duen egoera politiko eta sozial ezegonkorrari eguneroko lanarekin aurre egiteko asmoz. Isidro, 1931. urtean jaio zen, eta 1957. urtean apaiztu ondoren 33 urtekin Ruandara joan zen gaur egun arte han lanean jardun duelarik.
Goian bego Isidro Uzkudun.

Ontziola Itsasontzi tradizionalen ikerketa eta eraikuntza zentroaren inaugurazioa Donibanen

Ekainaren 26an inauguratu zen gure herrian Ontziola Itsansontzi Tradizionalen Ikerketa eta Eraikuntza Zentroa. Branka aldizkariak Xabier Agote, ontziolaren arduradunarekin solasaldi bat eduki zuen egitasmo honen nondik norakoak ezagutzeko.

Xabier Agote, Ontziola tailerrean lanean.

Zertan datza aurrera eramaten ari zareten egitasmo hau?
Historian zehar ontzigintzak Gipuzkoan eta bereziki gure herrian izan duen garrantzia oso handia izan da. Teknika propioak genituen, eta Euskal Herrirako ez ezik, Espainia eta Europarako egiten ziren itsasontziak. Gaur egun, ofizioa galdu egin da Gipuzkoan. Gure asmoa Euskal Herriko ontzigintza aztertzea, baina modu aktibo batean aztertzea, eta ikertu ondoren eraiki.
Zer esan nahi duzu modu aktiboan diozunean?
Gure helburua ez da ikertzea ikertzeagatik, ikertu ondoren ontziak eraiki egingo ditugu. Jendearen aurrean eraikiko ditugu, jendeak prozesu guztia ikus dezan, eta bukatu ondoren, putzuratu egingo ditugu. Behin urean daudela, jendeak aukera izango du bertan ikasteko nola ibiltzen ziren gure aurrekoak itsasontzi-mota horietan, bai arraunean eta bai belarekin.
Brankak ematen didan aukera hau aprobetxatu nahi dut gonbidapena zabaltzeko, ateak irekiak daude tripulazioan parte hartu nahi duen edonorentzat.
Zeintzuk dira Ontziolan egingo diren jarduerak?
Alde batetik, txalupa baten eraikuntza, XVIII. mendeko 9.5 metroko txalupa bat, 12 lagun ibiltzen ziren arraunean eta baita belarekin, hiru mastakoa izango da. Bestetik, ontziolan, aroztegi bat ez ezik erakusketa-areto txiki bat daukagu, eta bertan erakutsi ahal izango dugu panel batzuen bidez egiten ari garen lana eta baita itsasoarekin lotuta dauden hainbat erakusketa ere.
Zer harreman dauka edo eduki dezake zuen egitasmoak Ontzi Museoarekin eta turismoarekin?
Gure proiektua Euskal Herriko Ontzi Museoa Pasaian egin dadin hazi bat izan nahi du. Eta turismoari dagokionez, turismoa nahi badugu, zerbait eskaini behar da, eta aukeran turismo kulturala hobea litzateke. Eta ontzigintza gure kulturaren erakusgarri oso garrantzitsua da. Gure helburua, zentzu honetan, Pasaia eta Donibaneri bizitasun bat ematea da. Azkenik, azpimarratu nahi nuke egitasmo hau aurrera ateratzeko, ezinbestekoa izan dela Oarsoaldea Garapen Agentziaren lana . Egitasmoan sinetsi dute eta beraiek bideratu dute. Finantzaketa Eusko Jaurlaritzako Turismo Saila, Pasaiako Udala eta Iberdrolaren eskutik lortu dugu.

maita nazazu gutxiago
goza nazazu gehiago
Txirrita AEK euskaltegia
Zumalakarregi 9, atzekaldea
Tel.: 943 52 55 45
TXIRRITA AEK EUSKALTEGIA PASAI ANTXO

URTXINTXA BULL
URTXINTXA BULL, S.A.
Gipuzkoako English Mark Darts
Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Pasaia turisten pasealeku

Azkenean iritsi dira oporrak. Udararen etorrerarekin batera, Pasaiatar gehientsuenak maleta edo bizkar-zorroaren prestaketan gabiltza. Bikinia, eguzkirako kremak, mapak, gidak... adi eta ez ahaztu ezer ez. Baina gu herritik kanpora goazen honetan, zera pentsatu genuen: Pasaiak, ba aldu erakargarritasunik kanpotarren-tzat? Zer eskaini diezaioke Pasaiak bisitariari? Pasaia herri turistatzat har dezakegu? Galdera hauek eta beste batzuen erantzunaren bila abiatu ginen Oiartzungo Eskualdeko Turismo Bulegora.

TESTUA OLATZ MITXELENA

Eskualdeko Turismo Bulegoa, Oarsoaldea S.Ak kudeatzen du, eta eskualdeko lau udalen ekimen koordinatuari esker sortu zen, Pasaia eta bere ingurua leku turistiko gisa sustatzeko. Erakunde honek eskualdean dauden baliabide turistikoak ezagutzera ematea du helburu, eta horretarako hainbat ekimen martxan jarri ditu, hala nola, turismo-azoketara joatea edota Pasaia eta bere inguruaren ibilbideen disenua.

Era berean, iazko udaran, lehendabiziko aldiz, turismo-bulegoa zabaldu zuten Donibaneko Victor Hugo etxean. Aurtengo Aste Santuan ere bertan aritu ziren turistei harrera egiten, eta udaran berriro ere martxan jartzekotan dago.

Eider Calderon, turismo-bulegoko arduraduna da eta berarekin hitz egin genuen Pasaiako turismoari buruz. Eiderren ustez, argi dago eskualdeko turismoa bultzatzeko baliabide garrantzitsuena Donibane dela, badian duen kokapenagatik zein etxe eta kaleetako arkitekturarengatik, Donibane, turista gehien erakartzen dituen barrutia baita. Azpimarratzekoa da, iaz, uztailetik azarora bitartean, 5000 pertsona baino gehiago pasa zirela Victor Hugo etxean kokatu zen informazio-bulegotik.

TURISTEN PERFILA

Zer motatako turista da Pasaiara hurbiltzen dena? Nondik etortzen dira gehien? Zer eskatzen dute?...Turismo-bulegoan jasotako datuen arabera, Pasaiara, nagusiki, unitate familiarrak hurbiltzen dira, hau da, gurasoak beraien seme-alabekin. Bikote ugari ere ibili ohi da gure kaleetatik eta, aldiz, laguntalde edo koadrila gutxi ikusten dira. Eguneko bisitariak dira, hau da, eguna pasatzera etortzen direnak.

Jatorriari buruz esan dezakegu, katalanak direla gehien bisitatzen gaituztenak, eta hauen atzetik frantsesak dira nagusi. Hego Amerikatik, Ipar Amerikatik baino askoz bisitari gehiago datoz. Asia, Afrika, Kanada eta Australiatik ere hurbildu ziren gurera iaz.

Donostia bezalako gune turistiko garrantzitsu baten ondoan kokatua egoteak, zalantzarik gabe, eragina du, baina, Pasaiara datorren turista, normalean, aldez aurretik gure herriaren berri izan du. Hiriburua ezagutzera datozenen artetik, asko dira gero inguruko herriak ikustera doazenak, gehienbat Hondarribia eta Donibane.

Iazko udaran, informazio - bulegoan gehien entzuten ziren galderak bi ziren: Pasaian zer egin eta ikus daitekeen eta non zer bazkaldu zitekeen. Ezin da ahaztu, Pasaiako baliabide turistiko garrantzitsuena, egun, bertako gastronomia dela. Asko dira, urte guztian zehar, Pasaiara hurbiltzen direnak bakarrik bazkaltzeko.

TURISMOA ERAKARTZEKO EGITASMOA

'Euskal Odisea. Parque Ludico Cultural bahia de Pasaia' izenaz ezagutzen da eskualdeko Garapen Agentziak Pasaiara turismoa erakartzeko duen egitasmoa. Proiektu honen barruan lau programa ezberdin sartzen dira, guztiak, euskal kulturan oinarritutak: 'Euskal arrantzalea', 'Pasaian zehar', 'Menditik itsasora' eta 'Pasaiatik Ameriketara'. 'Euskal arrantzalea' izeneko programa, balea eta bakailoaren arrantzarekin zerikusia du. 'Menditik itsasora' izenekoa, Oiartzunen zegoen mehategi eta siderurgiaren jarduerak itsasoarekin erlazionatzen ditu. 'Pasaiatik Ameriketara', herritik ameriketara irten ziren espedizioetan oinarritzen da; Blas de Lezo, López de Agirre, Juan de Garai... Hauek guztiak oraindik ere ez dira martxan jarri, bai, aldiz, 'Pasaian zehar' izenekoa. Hau, Pasaiara etorri eta bertan garai batez gelditu ziren bidaiari entzutetsuen esperientzietan oinarritzen da. Programa honen barruan hiru bisita gidatu ezberdin antolatzen dira. 'Bateleren bisita' izenekoa, txalupaz egiten den ordubeteko bisita da. Taldea badian zehar doala, portuaren jarduera, industria eta barrutien historia kontatzen da.

> **Katalanak dira gehien bisitatzen gaituztenak, eta hauen atzetik frantsesak dira nagusi.**

Majestik

Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB:http://www.iturgaiz.com
E-mail:majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.

Oarsoaldeako stand-a Madrileko erakustazokan.

'Victor Hugo' izeneko bisita, oinez egiten da Donibanen zehar eta momumentu garrantzitsuenei buruzko azalpenak ematen dira; San Juan Batailatzailearen eliza, Arizabalo Jauregia, Santa Isabel Gaztelua, Bonantzako Kristoren eliza...
Azkenik 'Laffayette' izenekoak, San Pedro eta Donibane lotzen ditu; Donibane ikusi, txalupa hartu

Iaz, 5000 pertsona baino gehiago pasa ziren Victor Hugo Etxean kokatu zen informazio bulegotik.

eta San Pedrora pasa han Zilarrezko faroraino joateko.

ONTZIOLA
Aurtengo bisitariek, aipatutako guztiaz gain, zer ikusi ere izango dute 'Ontziola' egitasmo berriari esker. Batetik, itsas ondarea zaintzea eta hedatzea eta bestetik, turismoa erakartzea dira egitasmo honen xedeak. 'Ontziola' Donibanen kokatuko da eta itsasontzi tradizionalen erainkuntza eta hauei buruzko ikerketarako gunea izango da. Uztailean hasita eta sei hilabetetan zehar, XVIII. mendeko itsasontzia berreraikiko dute bertan. Bisitari guztiei zabalik egongo da eta turisten bisita gidatuak ere bertara bideratuko dira. Euskal Herrian burutzen den bigarren berreraikuntza da eta munduko hirugarrena.

Aisia eta turismoaren alorrean Pasaiak dituen alde ahul eta sendoak

Alde ahulak:
-Inguruak jasaten duen hondamena.
-Tradizio falta turismoaren alorrean.
-Erakargarritasun turistikoa duten elementuetara iristeko eragozpenak.
-Turismoaren estrategia egituratzeko, erakargarritasun handiko elementu baten falta.
Alde sendoak:
-Garraiobide nagusien ondoan kokatua egotea.
-Donostia bezalako gune turistiko garrantzitsuaren ondoan kokatua egotea.
-Bertako gastronomia.
-Aberastasun kulturala; arrantza, merkataritza, untzigintza, estropadak, folklorea, euskara bera eta marinel mundua. Elementu hauek guztiak kultura eta herri arrotzen ezagutza bilatzen duen turismoarentzat interes handikoak dira.
-Donibane eta San Pedroko alde zaharretan dauden altxorrak eta historia unibertsalaren testigantzak; Victor Hugoren egonaldia, Laffayetten bidaia...

ETORKIZUNERAKO AUKERAK
Gai hau aztertu dutenen arabera, Pasaiak aisialdia eta turismoarekin erlazionatutako jarduerak garatzeko aukera onak ditu. Fernando Nebreda Díaz-ek, Oarsoaldea S.Ako gerenteak, Ontzi Museoak argitaratutako liburuan idatzitako artikuluan dioenez, erakarpen turistikoa izango lukeen proiektu handiren bat garatzea garrantzitsua litzateke, bi helburu bultzatuko liratekeelako : indarberritze ekonomikoa eta herri-egituraren berregituraketa. Zentzu honetan, bere ustez, kirol-portua, Ontzi Museoa nahiz Parke Tematikoaren proiektuak dira aztertu beharrekoak. Azpimarratzen da ere, aztertu diren aukera guztien artean, Ontzi Museoaren proiektua dela bideragarriena.

DATUAK
Hona hemen 1999 urtean Pasaia bisitatu zuten turisten jatorria portzentaietan:



Estatutik etorritako turistak.



Europatik etorritako turistak.

br

UZTAILA 2000
Uztailan Pasaian jaiak dira nagusi. Hona hemen bada jaietarako hainbat iradokizun eta gonbite

SAN FERMIN JAIAK
Uztailak 5 asteazkena
Arratsaldeko 19:00etan koadrilen jaitsiera, Gaztetxetik Alkateordetzara.
Ilunabarreko 20:00etan, Txupinazoa.
Goizaldean, Gau-pasa Iratxo taldearekin.
01:00etan, Larrain Dantza, Axular plazan.
Uztailak 6, osteguna-Haurraren eguna
Goizeko 07:00etan entzierroa.
Goizeko 11:00etan, Haur Sukaldarien Txapelketa. Gaia patata-tortila izango da. Eta ordu berean haur-jokoak frontoian.
Eguerdiko 12.00etan, zumardian, Alkate eta Alkate andre-txikien inbestidura ekitaldia.
Arrtsaldeko 17:00etatik 19:00etara, frontoian ur-jokoak haurrentzat.
Arrtsaldeko 18:00etan, Poteo-kalejira herriko gazteek osatutako txaranga batekin.
Arratsaldeko 19:00etan, zezen-plazan, koadrlentzako Bigarren Behi-Futbolaren txapelketaren kanporaketa fasea.
Gauerdiko 24:00etan,helduen danborrada.
24:00etatik 05:00ak arte, gau-pasa Trikikasio taldearekin.
Uztatailak 7-San Fermin-Preso eta Errefuxiatuen eguna
Goizeko 06:00eta diana eta txokolate-jana Gaztetxean.
Goizeko 07:00etan, entzierroa.
Eguerdiko 11:30etan, Viteri Plazan, esku zein palako pilota partiduak. Etxart, Martínez, Loiarte eta Apezetxea batetik, eta Txoparena Atorra, Polo eta Linazasoro bestetik.
Arratsaldeko 14:00etan herri-bazkaria.
Arratsaldeko 16:30etan, Gure Zumardian, Fausto Mugerza eta bere koadrilaren eskutik herri-kirolen erakustaldia.
Arratsaldeko 19:00etan haur danborrada.
Ordu berean, Gure Zumardian, sardina erreak eta sagardo dastaketa.
Arratsaldeko 20:30tan, enkartelada herriko kaleetatik zehar.
Gaueko 00:00etan, preso eta errefuxiatuei omenaldia.
Gaueko 00:30etan Rock kontzertua, Zea Mays, Idi Bihotz eta Eztanda taldeen eskutik.

Uztailak 8, larunbata-koadrilen eguna
Eguerdiko 12:00etan, Pasaiako eta Cerdanyola del Valleseko buruhandi eta erraldoiak, kalez-kalez ibiliko dira giroa alaituz.
15:00etan, Gazte Bazkaria, bertsolari eta txiste kontalariekin, zumardian.
Ilunaberreko 19:00etan, zezen plazan, San fermin Behi Futboleko Txapelketaren finala eta sari banaketa.
Gaueko 24:00etan, Barrilada.
Uztailak 9, igandea-euskararen eguna
Goizeko 10:30etan, Antxoko koadrilentzako Molinaoko itsasasdarrean Batel Lehiaketa, eta ordu berean Zumardian Euskal herriko Toka Txapelketaren finala.
Goizeko 11:30etan, pilota partidak herriko afizionatuen artean.
Eguerdiko12:30etan koadrilen arteko apostua, zumardian.
Arratsaldeko 15:00eta Arnasak antolatuta, herri-bazkaria. Arnasa Sariaren banaketa eta Trikitilariak.
Arratsaldeko 19:00etan, karroza desfilea
Gaueko 24:00etan, 'Pobre de mí'. Ondoren Txosnen inguruan jokoak eta dantzaldia Kiñu taldearekin.
KARMENAK
Uztailaren 14tik 17ra.
Ostiralean, gaueko 12:ooetan, Txatunga Benbe perkusio-taldearen emanaldia, Azoka ondoko txosnek antolatuta.
Larunbatean, arratsaldeko 16:00etan, goiti behera-lasterketa...
Gaueko 00:00etan 'Son del Río' talde kubaterraren kontzertua Euskadi Etorbidean.
Afariak, haurrentzako jokoak, herri-kirolak, sardinadak, eta ohiko bost danborradek izango dute tartea ere jaietako egitarauan.
SANTIAGOAK
Uztailaren 24tik 31ra
Egitaraua zehaztu gabe dago oraindik, baina ohiko ospakizunetan giroa ziurtaturik dago; San Pantaleon eguneko sardina-jana edo San Ignacio eguneko estropadan besteak beste.
ERAKUSKETA
Uztailaren 14tik 31ra bitartean, Donibaneko argazki zaharren erakusketa Victor Hugo etxean.
filmen emanaldia.

'Pasaiako Euskararen Historia Soziala' liburuaren aurkezpena

Pasaiako Euskararen Historia Soziala' liburua aurkeztu zen pasa den ekainaren 15ean Trintxerpeko Udal liburutegian. Abaraska Euskara Elkarteak antolatutako aste kulturalaren barruan, Nagore Atelak, Aurkene Isasik eta Jon Vicentek, Pasaiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren dirulaguntzarekin burututako lanaren aurkezpena egin zuten. Jende ugari bertaratu zen jarritako hitzordura, eta Brankatik ere ez genuen galdu nahi izan egileekin mintzatzeko aukera.

Aurkene Isasi, Jon Vicente eta Nagore Atela, liburuaren egileak.

Zeintzuk izan dira azterketa hau agiteko erabili dituzuen iturriak?
Jakina da gure hizkuntza ahozko tradizioan oinarritu dela mendeetan zehar, beraz, bertako idatzi-iturrien ezean, hasiera batean bidaiari eta atzerritarren testigantzak erabili ditugu. Horrelakoek, ikusten zuten herriaren deskribapena egiten zuten: ohiturak, bizimodua, eta nola ez, hain arrotza eta bitxia zitzaien hizkuntza ere. Bestalde, artxibategiak ere arakatu genituen, beti ere euskararen aipamenen bila. Eta, azkenik, XX. mendea azaltzeko, gure herriko aiton-amonei elkarrizketak egin genizkien.



XII. mendean gaskoiak Pasaian finkatzen dira. Zer nolako eragina izan du gaskoierak gure herrian?
Gaskoiera, gaur egun, inguruan desagertua dagoen hizkuntza da. Baina kontuan hartu behar da hizkuntza hau, euskararekin elkarbizitu zela. Bidaiari askoren testigantzak dauzkagu zentzu honetan, eta zeharo harritzen ziren gaskoiera entzuteaz Pasaian. XIX. mendean oraindik, gaskoieraz egiten zen tertulia bat zegoen San Juanen.

Pasaiako herria portu baten inguruan kokatuta egoteak nola eragin du hizkuntzaren erabileran?
Portuaren inguruan sortu eta egituratu izanak gure herriaren izaeran eragin handia izan du.. Arrantza, merkataritza eta ontzigintza izan dira ekonomiaren oinarria. Eta jarduera hauek, kanpotar eta atzerritarrekin hartu-emana eragin dute: atzerritarrak gure herrira etorri dira, baina pasaitarrak ere atzerrira joan dira, marinel edo arrantzale gisa. Honek, kultura eta hizkuntza ezberdinen interakzioa sortu du. Pasaitarren berezko hizkuntza euskara zen, baina beste hizkuntzekin ere harreman zuzena eduki zuen.

XX. mendeko kontuak ezagutzeko gure aiton-amonengana jo duzue. Zer nolako esperientzia izan da hau zuentzat?
Benetan oso interesgarri eta aberasgarria. Elkarrizketatuak, errepublika, guda zibila eta frankismoa ezagutu dituzte, eta garai hauetan guztietan euskarak izan dituen gorabeherak ezagutzen dituzte, eta kontatu egin dizkigute. Gainera, eduki dugun harrera izugarri ona izan da, horregatik, hemendik eskertu nahi ditugu aiton-amon hauek guztiak.

Nola baloratzen duzue egindako lana?
Guk, azterketa sakon eta mardul horietako batetik urrunduz, testu arin eta irakurterraza egin nahi izan dugu, pasaitar guztioi eskainia. Bistan da 100 orrialdetan ezinezkoa dela garai eta faktore guztiak agertzea. Pasaiako euskararen historia soziala bera baino gehiago, Pasaiako euskararen historia sozial baterako abiapuntu izan nahi du liburuak.

DB
IKASLAN
GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO BERARIAZKO 'OA
INSTITUTUA
DON BOSCO
San Markos errepidea z/g posta kutxatila 101, 20100 Errenteria
tel. 943 51 04 50/4/8 fax 943 52 92 20
WEB:http//www.donbosco.hezitek.net
E-mail:iefps@donbosco.hezitek.net

HSAOL BATXILERGOAK	ERDI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK	GOI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK
-Batxilergo teknologikoa -Osasun eta Natur Zientzien Batxilergoa -A eta D ereduak	-Soldadura eta Galdaragintza -Laborategia -Karrozeria -Ibilgailuen elektromekanika -Hotz klimatizazio eta bero ekoizpen instalazioen muntaia eta mantenimendua	-Produktu elektronikoen garapena -Analisi eta kontrola -Ekipo industrialen mantenimendua -Metal eraikuntzak -Prozesu eta eraikin instalazioetako muntaia eta mantenimendua

zuk zeuk!

FILMEA
"AL LIMITE"
Zuz.: Martin Scorsese



Goizeroko kafe-dosiaren bila etorri naiz tabernara. Erakargarriago otutzen zait ematen ari diren hartzen inguruko erreportajea, horri txuriaren desafioa baino.Horra inspirazioa. Zera bururatu zait: zenbait gizakik har-tzak bahitzen (edo akatzen) dituzten bitartean, beste batzuek, aurrekoak filmatu eta salatzen dituzte, moralaren hatzaz seinalatuz. Sinplea da hartzaren bizitza, politiko, epaile edo militarrik gabekoa. Gizakien bizitza, ordea, eta haren pentsamendua, "garatuz" doa uneoro. Honen ondorioz, ez bakarrik hartzen ziurtasuna (bizitza!), baizik eta gurea jartzen da kolokan. Batbateko ondorioa: bada gizakien pentsamenduan hondamendira eramaten duen zerbait. Baina, zein da sun-tsikortasunera eramaten gaituen eragile edo delako hori? Esploratu gabeko birusa ote? Heriotzaren inguruko kontzientzia? Bakardadearen ezintasuna, agian? Batek daki...Hau da Scorsese jaunak etengabe jorratzen duen gaia, hots, gizakiaren konplexutasuna.Oharra: maisua da. ∎

LANDER G. PEREZ

MUSIKA
BELLE & SEBASTIAN
"Fold your hands child, you walk like a peasant"

'Belle and Sebastian' beren diskoetako karpeteko argazkietan agertzea gustatzen ez zaien talde horietakoa da. Oso gutxitan eskaintzen dituzte elkarrizketak, eta beti beren kolaboratzaileen izenak beraien izenen aurretik jartzen dituzte (azken hauek jartzen dituztenean). Horregatik ez nintzen larritu prentsak "Smiths berriak" bezala goraipatu zituenean bere diskorik eskasena argitaratu zutenean. Ez zirudien puxika bat bezala puztu eta berehala lehertuko zen beste talde britainiar bat.

Denborak hori berretsi duela uste dut. Galdu dute "If you're feeling sinister" beren bigarren disko bikainean zuten freskotasun eta injenuitatea, heldutasunean irabazteko. Oraingoan abesti eta konponketa landuagoekin etortzen zaizkigu, baina beren ohiko izpiritu amateurra galdu gabe zorionez.

Dudarik gabe disko malenkoniatsu hau uda honetan maiz entzunen dudan diskoa izanen da. ∎

JUANMA ETXEBESTE

MARGOLARIA
HOPPER



XX. mendeko iparrameriketako pinturaren aurrelarietako bat da. Hasieran oso ezaguna izan ez bazen ere, 1950etik aurrera hasi zen ezagutzera ematen.

Bere lanetan, erdi mailako gizaki modernoaren bakardadea islatzen du, leihoetatik sartzen da gizon-emakume anonimoen eguneroko bizitzan, eta bertako eszena arruntenak izaten dira bere artelanetako gai. Angelu desberdinetatik baina beti leihotik begira, pertsonaien intimitatea bortxatu egiten du; beraien inkomunikazioan sartzen da melankolia eta hausmarketa uneak islatuz.

Bere irudien errealismo gordinak eta argi-ilunen kontraste bortitzak, pertsonaien bakardadea sentiarazten dio ikusleari, eta era berea, nahigabeko 'voyeur'-aren sentsazio deserosoa. ∎

NEREA ORTEGA